

LITERATURA > MIKROIPUINAK

goizaldelاندabaso

“Liburu hau idazten konturatu naiz lirikotasuna nigan oso iltzatuta dagoen zerbait dela”

'Bränskint', leku magiko eta asmatuen zerrendan tartetxo izango duen izena. Eta izana ere, esan beharko. Liburu jakin baten titulua izatera iritsi baita 'Bränskint'. Orrialde hauen ohiko irakurleok ezagun duzuen izenaz sinatua dator: Goizalde Landabaso (Deustua, 1970)

EDORTA JIMENEZ

Goizalde Landabasorena ez da *Bränskint*-en azalean ageri zaigun izen bakarra. Izan ere liburua ez baita huts-hutsik testua. Gurean bakanetan baino ikusi ez ditugun irudiez horniturik dator. Horien egilea Aritz Eiguren da. Hitzen sortzailea elkarrizketatu dugu Ortzadar honetarako.

Basurtuko ospitalean izan berria zara eta, Basurtu hitzak iradokitzen dizuna esatea eskatu behar dizut.

Iruditzen zait *Bränskint* erditu zela Basurtun, sentsazio bat da. Erditze luze eta mingarriaren ostean argira etorri da *Bränskint* ez dagoen hiri batean, ezleku batean. Eta badute biek loturarik. Bazterreko hiriak dira, iraun bizi nahia gori-gori dago bietan, gizakiaren arima mindua eta aldi berean indartsua nabarmen antzeman daiteke bai batean eta bai bestean ere. Basurtuk eman dio azken bultzada *Bränskint*-i, eta betiko batu ditu niretzat. Inork ez ditu maite hiritzar hauek, inork ez ditu bisitatu nahi, baina ukazina da euren existentzia. Eta gizakiaren izatasuna inon baino biziago dago bietan.

Zure lehenengo liburua 'Korte bat mesedez' izan zen (Alberdania, 2000), euskarazko kazetaritzaren ajeez idatzia. Horren harira edo, zure lanbidea irratiko kazetaria izanik, zera, Irratiari buruzko

ikuspegia aldatu egiten da ospitalean?

Munduaren denbora aldatu egiten da Basurtun. Mundutik at zaudete, talaia batean unibertsoa begiratzeko baina distantziatik; momentu batez bizitzatik jaitsi naizen sentsazioa izan dut nik. Eta ez dut uste ezerean ikuspegia aldatu didanik, baina hausnartzeko abagunea eman dit. Bizitzaz, existentziaz, heriotzaz, inportanteak diren gauzetaz, horretaz pentsatzeko modua eman dit Basurtuko hiriak. Eta oso irrati gutxi entzun dut. Beharbada niretzat irratia errealitatea delako, eta han, urruntasun horretan, osterantzekoa behar nuelako. Musikari biren diskoak entzun eta entzun egon naiz. Txuma Murugarren eta Tony Zenet-enak. Eta Amélie Nothomb-en eleberriak. Horixe izan da errealitatearekin izan dudana lotura bakarra.

Txuma Murugarren, poesia hutsa hitzetan eta indarra musiketan. Tony Zenet ez dut ezagutzen. Edonola ere, horrelakoak aditu eta aditu, ez duzu olerkirik idatzi? Non geratu da 'Jat' hura?

Egia esan azken boladotan gutxi idatzi dut. Burua *Bränskint*-en eta beste kontu batzuetan izan dut eta, gorputzak ez dit idaztea eskatu. Ekarki zidaten idazteko koaderno baina, nonbait, ez nintzen gai hitzik ateratzeko. Idatzi nuen bakarra esaldi bat izan zen: "Munduko leiho honetatik". Horixe izan zen idatzi nuen bakarra. Poesia idazten dut, eta baditut asko idatziak. Momentukoak dira, eta multzo horrekin zer egin pentsatu beharko dut. Baina sekula ez dut poesia abandonatu, ez irakurle ezta idazle gisa ere.

Aritz Eigurenen irudiek pisu handia dute liburu honetan. Nolakoak izan da elkarlana?

Euskal Herriko ilustratzaileen webgunearen bidez aurkitu nuen. Oso marrazkilari berezia da, gai da teknika eta marrazki era ezber-



'Bränskint' liburuan agertzen den Aritz Eigurenen irudietako bat.

dinean margotzeko. Eta gustatu zitzaidan. Berarekin geratu nintzen, testuak pasatu nizkion eta ideia gustatu zitzaion. Nahierara marrazteko esan nion, berari iruditzen zitzaion erara. Testu denak aztertu genituen, eta hortik gora marrazkiak bidaltzen hasi zen. Emaitza hortxe dago.

'Bränskint' liburua-aren atarian Huidroboren lau lerro sartu dituzu. Huidrobo izena Latinoamerikako poesiaren antologia guztietan ageri da, baina zuri eta Tere Irastorzari irakurri dizuet haren izena.

Poesia nahiko irakurtzen dut, bai. Gauero poema bat bilatzen dut eta hurrengo goizean lagun batzuei emailaz bidaltzen diet.

Aspaldi hasi nintzen egiten. Ez dakit zergatik, baina lagunak poeziatzale bihurtuko ez baditut ere, egunero nik gau horretan aukeraturako poema irakurtzen dute. Eta bide batez, nik ezagutzen ez ditudan poetak ezagutzen ditut.

'Bränskint' liburuko testuetako batzuk olerkitzat jo litezkeelakoan nago.

Bai, uste dut lirikotasunerako joera nabarmena dagoela nigan. Ba-

tzuetan joan egiten zait, gauza inkontzientea da, konturatu barik poesia irteten zait. *Bränskint*-en sintetikoago izaten saiatu naiz, lirikotasuna ezabatzen ahalegindu nintzen hasieran. Baina gero konturatu nintzen nigan oso iltzatuta dagoen zerbait dela, eta horrela bada ez dela ezkutatu behar. Eta genero literario zenbaiten arteko mugarrak oso lausoak dira eta zaila izaten da zehazten zer den gauza bat eta zer den beste. Poema eta abesti baten artean ere pasatzen da. Bien arteko aldea zer da, musika? Eta musika nahikoa al da genero bi bereizteko? Uste dut uztarketak asko ematen direla eta *Bränskint*-en ere uztarketa eta gurutzaketa asko dago.

Nolanahi ere mikronarrazioak dira.


Bai, bai, mikronarrazioak dira. Flash antzeko zerbait. Instant batzuk hiri erraldoi baten barna. Esan nezake taupada bat dela mikronarrazio bakoitza.

Lekuak -'Bränskint'-ek- ematen die batasuna?

Bai, azkenean hiria, *Bränskint*, hezurdura da. Hezurdura horretan gertatzen da dena, gertatzen da bizitza, gertatzen da hiri bat. Hiria eskenatoki bat da, eta bertatik mugitzen diren pertsonaiak dira bizia eta arima ematen diotenak. Egia da askok esaten dutela hiria bera dela arima duena. Baina nik uste dut hiria dekoratua baino ez dela, gu garela hiri hori egiten duguna, gurea dela arima, gureak dira sentimendu oro, desioak, perbertsioak, maitasuna, desioa, biolentzia... Gurea da hori dena. Polita litzateke hiria arimadun izakia izatea, baina ez dut uste denik. Gure asmakizuna da.

Badauka itsasorik hiri horrek? Ezin dut itsasorik, itsasadarririk, urik gabeko hiririk imajinatu. Urzalea naiz eta itsasozaleago. Se-

"Polita litzateke hiria arimadun izakia izatea, baina ez dut uste hala denik. Gure asmakizuna da"



Aritz Eigurenen ilustrazioek berebiziko garrantzia dute Goizalde Landabasoren azken liburuan.



kula ez naiz bizi izan uretik urrun eta bere beharra sentitzen dut. Eta hiri honek behar zuen itsasoa. Munduratzeko eta mundutik etortzeko. Harago begiratzeko. Hiri honek duen itsasoa zakarra da, bortitza, iluna, eta noizean behin baretzen da. Atlantiarra da oso. Ni ere atlantiarra naiz oso. **Hiri horretako edukiontzietan begiratzen duenak berdin-berdin topatu ahal ditu hildako ume abandonatuak zein panpinak, panpinak zein ume abandona- tuak.**

Gizartearen isla ere bada gurditxo hori. Dena botatzen dugu, edozer gauza, eta maiz umeak ere agertu izan dira edukiontzietan. Bitxiena da zer normaltasunekin ametitzen dugun panpinak eta umeak berdin-berdin, maila berean, eduki-ontzi batean egon litezkeela. Albistegietan horrelako albiste bat en-tzuten dugunean harritzen gara, are gehiago, eskandalizatu ere. Baina gero errealtatean albiste hauek denak oso kudeatuta ditugu, beraiekin bizi gara eta segundoko eskandalua da. Uste dut gutxitan pentsatzen dugula horren denaren atzean benetan zein drama ezkututzen den. Beharbada bizi garaiekin datorren kontua da, agian superbibentzia kontua da.

'Bränskint' ez ote da Bilbo?

Bränskint hiria da. Edozein hiri. Hiri guztiak. Turismo gidetan nekez azalduko diren istorioak daude liburu honetan, hiri honetan. Izan ere, *Bränskint* ezer bada atzeko aldea da, erakusten ez dena, sarri garbitzen ez dena, non sentimenduak era guztietakoak gurutzatzen diren. Mina, bakar-dadea, pasioa, maitasuna, mespretxua, herra... dena dago *Bränskint*-en. Bilbo, Amsterdam

edo Singapur da *Bränskint*. **Munduko leku askotan izan liteke hiri 'Bränskint'. Alabaina, Bilbo bakarra dago eta, Bilbo honetan zein da euskal literaturaren lekua?** Euskal literaturak Bilbo erdigunea hartu behar du, harrotasunez egin behar du. Uste dut badela ordua modu aktibo eta sendo batean literaturaren gainekoak antolatzeko eta eskaintzeko. Tarteka egiten dira, han eta hemen, baina

uste dut gauza indartsuagoa, ambiziosagoa, modernoagoa eta erakargarriagoa egin litekeela. Eta egin behar dela. Eta, gainera, uste dut gauza interesgarriak, ezberdinak eta apurtzaileak egiteko gaitasuna badagoela, egon. Euskal literaturan egiten diren ahaleginak oso interesgarriak dira, mugak hausten dira, berritzaileak diren proposamenak egiten dira. Ikusi egin behar da hori dena.

Zure lehen pausoak literaturan 'Gutziak' (Txalaparta) izenburuko liburuarekin egin zenituen. Emakumeek idatziriko narrazioen bilduma da. Emakumea gure literaturan!

Ez da politikoki zuzena esatea ezer emakumeen, zelan esan, "gizarte-ratzearen" kontra. Aspaldiko kontua da, baina ez da hain aspaldikoa. Egoerari pintatura ederra eman diogu, beraz, nolabaiteko ametitze soziala dago, baina pinturaren azpian gauza asko dago, aspaldiko inertziak, edo ez dakit, agian ideiak ere bai. Eta noski, literaturan ere bai. Ez da zuzena, zeharkakoa da, sibilinoia, baina emakumea batzuetan ez da serio hartzen. Zoritxarrez ez da soilik nire inpresioa; horrela balitz, gaitzerdi. Pintura azpiko herdoila da ezabatu behar dena.

"Euskal literaturak Bilbo erdigunea hartu behar du, harrotasunez egin behar du"



Goizalde Landabaso idazlea, bere azken liburu eskuan duela. ARGAZKIA: DAVID DE HARO

"Turismo gidetan nekez azalduko diren istorioak daude liburu honetan, hiri honetan"